

Euskaldunak eta Goi-mailako Hezkuntza Esparru Unibertsitario Europarra.

ECTS kreditu-sistamarako egokitzapena; irakasleariaren eginkizunak

Xabier Isasi Balanzategi
UEUko kidea eta EHUko irakaslea

Bolognatik abiatutako prozesuak, oro har, eta ECTS motako kreditu-sistemaren hedapenak aldaketa handiak eta esanguratsuak ekarriko dituzte Euskal Herriko unibertsitateetara. Kreditu-sistema berriak ikasleriaren mugikortasuna areagotzeaz harago, ikasleen jarduera akademikoak zabaldu eta handitu egingo ditu.


Irakasleriari dagokionez, lan handiagoa ekartzeaz gainera antolaketa-aldaketak ekarri behar ditu ECTS motako kreditu-sistema berriak. Nolako eta zenbateko aldaketak datozen ikusirik komunitate unibertsitario euskaldunak dauden arriskuez eta izan litezkeen aukerez jabetu beharko luke. Alde batetik, unibertsitatean azken urteotan euskararen normalizazioan izandako aurrerapenak arriskuan egon litezke. Bestetik, Europar Batasuneko goi-mailako esparru unibertsitarioaren eraketak Euskal Herriko unibertsitateen arteko bateragarritasuna eta komunitate unibertsitario euskaldunaren kohesio handiagoa lortzeko balio lezake.

The process initiated in Bologna, and the establishment of the ECTS credits system, involves large and significant changes in the universities of Euskal Herria (Basque country). The new credits system, besides promoting the mobility of students, increases students' academic activities.

In relation to the teaching staff, the new ECTS credits system enlarges the work load compels to create new figures of teaching staff. In this new situation, Basque professors are impelled to consider the risks that these changes imply for teaching in Basque language. Nevertheless, the European Space of Higher Education plays a relevant role in facilitating agreement a joint development in the Universities of the Basque Country and increasing cohesion, in the Universities of the Basque Country.

Euskaldunak eta Goi-mailako Hezkuntza Esparru Unibertsitario Europarra

Europar Batasuneko Goi-mailako Hezkuntza Esparru Unibertsitarioaren diseinua eta hedapena oso loturik doakio eraikitzen ari den gizarte-ereduari. Oro har, hiru dira Bolognan hasitako prozesuak jarritako helburuak: harmonizazioa, kalitatea eta mugikortasuna.



1. irudia. Europar Batasuneko Goi-mailako Hezkuntza Esparruaren hirukia.

Egokitzapen-prozesu honetan Europar Batasuneko unibertsitate-eredu desberdinak elkarren bateragarri egin behar dira. Horretarako unibertsitate mailako ikasketen antolakuntza bi maila orokorretan banatuko da: gradu aurrekoa eta gradu ostekoa. Gradu aurrekoak, gutxienik, hiru urteko iraupena izango du eta gradu ostekoak, berriz, bikoia.

Itxura denez, unibertsitateen autonomia eta haien arteko lehiakortasuna areagotuko da. Halere, hasieran gehien eragingo duena ezarriko den kreditu-sistema berria izango da. *European Credit Transfer System* (ECTS) motako kreditu-sistema da, hain zuzen, proposatzen den eredu. Kreditu-sistema horren funtsezko helburua unibertsitateen mugikortasuna lortzea da, batez ere, ikasleena. Harmonizazioa, funtsean, Europar Batasuneko unibertsitateen arteko kreditu-sistema bateragarria eta homologagarria izatea da.

Ukatzerik ez dago harmonizazio-prozesu honek bere akatsak eta arriskuak badituela. Bihar-etziko Europar Batasuneko unibertsitatea lehiakorragoa, selektiboagoa eta lan-merkatuaren interesen neurrikoa izango da. Hori da harmonizazio-prozesu honek bilatzen duena eta ez dago zertan ezkutatu. Prozesu honen barruan unibertsitate bakoitzak bilatu behar izango du bere lekua eragin kaltegarri horiek leuntze aldera. Komunitate unibertsitario euskaldunoi dagokigu erabakitzea aldaketa horien aurrean zein jarrera hartu.

Ikasleria ECTS motako kreditu-sistemaren subjektua

Unibertsitateko ikasleak dira, dudarik gabe, datozen aldaketak nabarmenen nozituko dituztenak. Neurri batean, ikasleriarengan gauzatuko dira aldaketak. Ezagutzen ditugun joerek adierazten digute gradu aurreko tituluak gutxiago eta

balio anitzekoagoak izango direla. Iraupenari begira laburragoak, bi joera nagusi daudelarik: 3 urte (180 kreditu) Europar Batasuneko iparraldeko estatuetan eta 4 urte (240 kreditu) Estatu espainolean. Gradu ostekoak, ostera, 120 kreditu inguruko iraupenekoak (2 urte), master eta doktoregoari ateak irekiko dizkiotenak. Orain baino gradu osteko titulu gehiago izango dira baina unibertsitate desberdinetan sakabanaturik. Gauzak doazen bidetik, seguru asko, gradu osteko tituluetan unibertsitateak lehia estuan sartuko dira berriazko tituluak eskaintzeko.

Orain ezagutzen dugun unibertsitate-eredu oro hartzailea edo jeneralista krisian dago. Europar Batasuneko harmonizazio-prozesuak, logikoa denez, unibertsitateen arteko berdintze-joera dakar. Unibertsitate bakoitzak ondo zehaztu behar izango ditu zeintzuk diren beren ezaugarri bereizgarriak. Edozelan ere, gureak bezalako unibertsitateetan aurreikus daiteke gradu aurreko tituluen eskaintza orain baino murriztazago izan daitekeela; gradu ostekoetan, berriz, oraingo eskaintza baino zabalagoa izan daiteke. Horiek, berriz diogu, ezagutzen ditugun joerak be-tetzen badira. Gure ustez, Euskal Herriko unibertsitateen ezaugarri bereizgarriak ez badira ondo zehazten eta lantzen, hirugarren edo laugarren mailako uniber-tsitate europarrak bihurtzeko arriskuan izango dira.

Tituluetan izango diren aldaketak eztabaidagarriak dira. Tamalez Euskal Herrian oso eskuduntza urriak dauzkagu, gradu aurrekoetan estatuak erabakiko baitute tituluen mapa nola geratzen den. Estatu espainolean, eta frantsesean antzera, unibertsitate guztiak zain daude. 2007. urterako aurreikusita dago tituluen auzia arautzea. Bien bitartean kreditu-sistema berriaren ezarpenak apurka-apurka egingo du bere bidea.

Lehen esan dugunez, ECTS motako kreditu-sistemaren subjektua ikasleria da. Hau da, ikasleriaren jardura orotan antzemango da gehien sistema berria. ECTS motako kreditu-unitate estandarrak unibertsitateen arteko transferigarria dakar. Hasteko, esan dezakegu gehiegi erratu gabe, ikasleek lan gehiago eta handiagoak egin behar izango dituztela. Gure azterketarako gizarte-zientzietako adibidea hartu dugu. Ez dugu uste atera ditugun ondorioak gainerako kasuetan askoz diferentek izango direnik.

Demagun, esaterako, gaur egungo kreditu-sisteman ikasle batek 60 kreditu matrikulatu dituela, ikasle horrek izango ditu ikasturtean zehar 450 eskola-ordu teoria eta praktikako eskolatan banaturik. Horrez gainera, *bere kasa*, beste 150 ordu eman behar izango ditu irakasleak jarritako eginkizunetan eta egutegi akademikoaren arabera denbora jakin bat izango du ebaluaketak eta azterketak prestatzeko eta egiteko. Esan genezake gehiegi erratu gabe ikasle arrunt batek ikasturte horretan 800 bat ordu emanez erraz gaindi ditzakeela irakasgai guztiak. Hau da, eskolak eta irakasleak ipinitako lanetatik aparte ikasleak, bere aldetik, beste 200 bat ordu jarri beharko lituzke.

Indarrean dagoen kreditu-sistemaren arabera ikaslearen denboraren banaketa honela irudikatu dugu:

Kreditu baten ordu-balioa:	10 ordu
-----------------------------------	----------------

Indarrean dagoen kreditu-sistema				
Kredituak	Jasotako eskola-orduak	Ikasleak bere aldetik eman beharreko orduak	Azterketetarako denbora	Orduak guztira
60	450	150	200	800
	% 56	% 19	% 25	

1. taula. Ikaslearen denbora-banaketa indarrean dagoen kreditu-sisteman.

Oraingo kredituak hamar bat ordu balio du, ordu horietatik % 75 teoria eta praktikako eskola-orduak, % 25, berriz, ikasleak, irakaslearen aginduz eta zuzendaritzaz, egin beharreko lanetan eman beharrekoak. Horiei erantsi dizkiegu egutegi akademikoetan jarritako orduak azterketetarako. Azken ordu horiek kalkulatzeko otsail eta ekaineko deialdietan 5 aste daudela hartu dugu eta, hortik, hain zuzen ere, ikasleak azterketak prestatzeko eta egiteko 200 bat ordu erabili dituela proposatu dugu. Batez beste 40 bat ordu asteko.

Ikusten denez, oraingo kreditu-sisteman eskolak, irakasleak ematen dituen eskolak, dira haztapen-neurririk handiena, % 56.

Dagoeneko ECTS motako kreditu-sisteman ikasturte bakoitzean ikasleak 1.600 ordu egin behar izango ditu 60 kreditutan banaturik. Hortik abiatuta ondorengo taula eratu dugu:

Kreditu baten ordu-balioa:	25-30 ordu
-----------------------------------	-------------------

ECTS motako kreditu-sistema					
Kredituak	Jasotako eskola-orduak	Ikasleak bere aldetik eman beharreko orduak	Azterketetarako denbora	Programatu eta ebaluatutako jarduerak	Orduak guztira
60	450	150	200	800	1.600
	% 28	% 9	% 13	% 50	

2. taula. Ikaslearen denbora-banaketa ECTS motako kreditu-sisteman (I).

Simulazio hutsa da, jakina. Taula eratzeko suposatu dugu ikasleek eskola-orduen kopuru eta azterketa-denbora bera izango luketela. Horrela eginez gero, ikasleak 800 bat ordu eman beharko lituzke programatutako bestelako jardueretan. Eskola-orduak murriztuko bagenitu, jakina, programatu beharreko ordu horiek gehiago izango liriateke. Gauzak horrela, ez dirudi ikasleek jasotzen dituzten eskola-ordu kopurua murriztuko litzatekeenik.

ECTS motako kreditu-sistemak aldaketa sakona dakar. Ikaslearen jarduera guztiak neurtuak eta ebaluatutak izango dira. Oraingo sisteman irakasleriak ikaslearen 600 bat ordu antolatu, programatu eta ebaluatzen baditu, ikasleek

euren kabuz eman beharreko gainerako orduak inplizitu daudelarik, ECTS motako kreditu-sisteman ordu horiek 1.600 izango dira, hazkuntza ikaragarria nonahitik ikusita.

Egindako simulazioan eskolak orain ikasleen jarduera garrantzitsuena badira ere, ECTSren ereduan ikasleek egin beharreko lanak izango dira haztaperen-neurririk handieneko jarduera. Irakaslearentzat, ordea, azken ordu horiek programatzea, jarraitzea eta ebaluatzea izango da, dudarik gabe, aldaketaren buruhausterik handiena. Hori horrela, ulergarria iruditzen zaigu irakasleak pentsatzea eskola-ordu gutxiago emango duela. Baina ez zaigu iruditzen ikasleentzako ECTS motako kreditu-sistemak eskola-orduen murrizte esanguratsurik ekarriko duenik.

Esandako hori, jakina, ez da erabat homogenea, ikasketa mota batetik bestera aldaketa handiak egon daitezke eta. Izaera teknologikoko ikasketetan, seguru asko, ikasleek ordu gehiago eman behar izango dituzte bestetuetan baino. Baliteke unibertsitateko hainbat ikasleek 200 ordu horiek baino gehiago ematea, txostenak egiten, ikasten, lan praktikoak egiten, bibliografia arakutzen eta abarretan. Edozelan ere, esplizituki ez zaie horrelakorik eskatzen eta ez zaizkie lan horiek ebaluatzen. Kontuak kontu, ECTS motako kreditu-sistema berriak ordu gehiago eman behar izatea ekarriko du kasu guztietan.

Irakasleria ECTS motako kreditu-sisteman

Unibertsitateko irakasleriari egokitu zaio ECTS motako kreditu-sistema bidegarri egitea. Arestian esan dugunez, oraindik galdera asko dago erantzuteke. Ez dakigu titulazioak nola geratuko diren, zeintzuk desagertuko diren, berriak izango ote diren, zein iraupenetakoak izango diren. Egunean-egunean argituko zaigu bidea. Halere, ikasleen gainean ipini nahi den zama hori irakasleok eraman nahi izango dugu neurri handian.

Nola kudeatu behar dugu ECTS motako kreditu-sistemak dakarrena? Guztion ahotan dabil bolo-bolo kezka bera. Guk, jakina, ez dugu erantzunik. Datu eta ideia batzuk baditugu. Ez da gutxi.

Unibertsitateko irakasleriak araututa dauka bere lan-jarduna. Hori, behintzat, ezaguna da. Jarduera osoko irakasle batek zenbat eman dezakeen jakinik, mugak eta arazoak non egon daitezkeen jakin genezake. Hori da, hain zuzen ere, egin dugun azterketa.

Irakasleriaren asteko lan-jarduna			
Eskola-orduak	Tutoretzak	Bestelakoak	Guztira
8	6	23,5	37,5

3. taula. Espainiako unibertsitate publikoetako fakultateetako irakasleriaren asteko lan-jarduna.

Fakultateko jarduera osoko irakasle-ikertzaile batek indarrean dagoen kreditu-sisteman, gehienez, 30 kreditu eman ditzake, gutxi gorabehera 225 eskola-ordu.

Eskola-ordu teoriko eta praktikorik emateaz gainera, irakasleak, gehienez programa ditzake beste 75 ordu ikasleek euren aldetik lan egin dezaten. Horiek dira, gizarte-zientzietan bederen, irakaslearen mugak. Muga horien barruan jarduera osoko irakasle-ikertzaileak bateragarri egin behar ditu irakaskuntza eta ikerkuntzako eginkizunak. Nahikoa lan.

Alderdi horretan araututakoa aldatzen ez bada, eta ez dirudi epe laburrean aldatuko denik, ECTS motako kreditu-sistemak, halaber, irakasleen orduen banaketaren aldaketa ekarri behar du. Guk erabili ditugun datuen arabera, gizarte-zientzien kasuan, gogoan izan, irakasle batek ematen duen eskola-ordu bakoitzeko, gutxienez, hogeit hamar minutu eman behar ditu ikasleen aparteko lanak programatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko. ECTS motako kreditu-sisteman, berriz, ratio hori askoz handiagoa izango da. Beharko luke, behintzat.

2004-2005 ikasturtean egindako azterketa batean¹ ikasleriak oraingo kreditu-sisteman *bere kasa* denboraren % 18,5 eman behar zuela² kalkulatu genuen; ECTS motako kreditu-sisteman, ostera, ia % 45eraino iritsiko dela kalkulatu genuen. Kalkulu hori, komunikazio honetan egin duguna baino kontserbadoreagoa da. Ikasleriaren kasurako ezarri dugun irizpide horri jarraituz, irakasleriaren kasuan, ikasleen beren-beregiko jarduerak programatu, jarraitu eta ebaluatu ahal izateko, gutxienez, orain baino 2,4 bider denbora gehiago behar izango luke. Hau da, oraingo sisteman eskola-orduko 20 minutu eman behar baditu, ECTS motako kreditu-sisteman eskola-orduko 45 minutu baino gehiago beharko luke.

Gure ustez, horrek azal dezake zergatik zabaldu den unibertsitateko irakasleen artean eskola-orduen kopurua murriztuko delako ideia. Halere, irakasleen eskola-orduek gutxiago izan badaitezke ere, berriz diogu, ikasleen eskola-orduek ez dirudi esanguratsuki murriztuko direnik. Azalpena, oker ez bagaude, oso sinplea da. Alderdi batetik ikasleei oraingo sisteman baino ordu gehiago lan egitea eskatuko zaie, baina horrek ez du esan nahi eskola-orduek murriztuko zaizkienik, ikasleriaren ordutegia, nolabait esatearren, zabalduko da. Irakaslearen ordutegia, beste alderditik, zabaldu baino berrantolatuko da, ez dira ordu gehiago izango, beste modu batean antolatutakoak baizik.

Oraindik ez dakigu unibertsitateek nola helduko dioten arazo honi. Ez du konponbide errazik. Gure ustez, irakasle-ikertzaile kategoria desberdinak indarrean jartzea beste aukerarik ez dago. Hau da, irakasle batzuk ikerkuntzan, beste batzuk eskolak ematen eta besteren batzuk ikasleen lanak programatzen eta jarraitzen. Ikusteke dago. Ematen du ECTS motako kreditu-sistemak irakasleriaren berrantolaketa dakarrela.

Komunitate unibertsitario euskalduna ECTS motako kreditu-sistemari begira

Orain artean esan duguna, eta gainerako komunikazioetan esan dena, nahikoa da datorkigun aldaketa zer-nolakoa den antzemateko. Aldaketa handia eta

1. Balluerka, N. eta Isasi, X. (2005): "Kreditu europarrerantz hurbiltzeko eredu estatistikoa. Psikologiako ikasketak aztergai", *Uztaro*, **52**, 52-77.

2. Irakurleak, seguru asko, ikusi du 2. taulako datuak biribildu ditugula.

adierazgarria izango da. Komunitate unibertsitario euskaldunak, bereziki irakasleriak, arreta handiz jarraitu beharko lioke aldaketa-prozesuari orain artean unibertsitatean euskararen normalizazioan lortutako aurrerapausoak alferrik gal ez daitezen.

Arazoi batzuk baditugu eduki pentsatzeko ECTS motako kreditu-sistemaren ezarpenak atzerapausoak ekar ditzakeela. Baten batzuk aipatuko ditugu:

1. Euskal Herriko unibertsitateen eta erakundeen eskuduntzen gabezia.
2. Komunitate unibertsitario euskaldunaren txikitasuna eta eragin eskasa.
3. Komunitate unibertsitarioaren kohesio falta.

Beste aldetik izan genuen aurreko ikasketa-planen aldaketak erakutsi zigun gal zitekeela. Galdu genuelako, gutxi baina galdu. Oraingo aldaketa, ostera, aurrekoarekin konparaturik askoz adierazgarriagoa eta handiagoa da. Gainera, azken urteotan izandako aurrerapenak garrantzitsuagoak izan dira. Jokoan dagoena, bada, asko da. Eta gal daitekeena ere. Ikasleen mugikortasunaren eraginez ikasleak gal ditzakegu. Euskaraz irakasteko gaitasuna gal dezakegu titulu eta ikasketen berrantolaketaren ondorioz. Gure gizartearen garapenerako interesgarria den tituluren bat edo beste gal dezakegu.

Dena, jakina, ez dira arriskuak. Zerbait irabaz dezakegu. Baina irabaz dezakeguna, kalitatean, Euskal Herriko unibertsitateen arteko kohesioan, gradu osteko tituluetan eta abarretan guk egiten dugunaren baitan dago. Ez badugu ezer egiten deus irabazi ez eze, galtzea ia gertaera segurua da.

Euskal Herriko unibertsitateen eta erakundeen eskuduntzen gabezia

ECTS motako kreditu-sistema Bolognako adierazpenetik eratorritakoa da. Hau da, Europar Batasuneko estatuetako zenbait ministrok eta goi-agintariek erabakitakori darraio. Euskal Herriko erakundeek, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez Nafarroako Foru Komunitatean, ezta Ipar Euskal Herrian ere bertan ez baitago berezko erakunderik, ez daukate inolako eskuduntzarik prozesu honetan.

Euskal Herriko unibertsitateei dagokienez, egoera antzekotxo da. Erabakimena, bere neurrian, Frantzia eta Espainiako unibertsitateei dagokie eta beren baitan Euskal Herriko unibertsitateek daukaten eragin apurra. Hutsaren hurrena, alegia.

Tituluak, haien iraupena eta banaketa estatu mailan erabakiko dira, estatuetako gobernuek eta, maila apalagoan, errektoreen biltzarrek erabakiko dute. Euskal Herriari hobeto letorkioke egitura bereko titulazioak izatea Iparraldean eta Hegoaldean eredu bateragarriak izan ahal izateko. Baina, itxura denez, Frantziak 3+2 ereduaren aldeko apustua egiten duen bitartean, Espainiak 4+2koaren aldeko joera dauka. Alderdi honetan guri lagungarria gerta dakigukeen joera berdintzailea ez dirudi gauzatuko denik.

Gehienbat, eta ez nuke nahi ezkorregia izan, datorkigun aldaketa ahalik ondoen kudeatzea egokituko zaigu.

Komunitate unibertsitario euskaldunaren txikitasuna eta eragin eskasa

Eskuduntzarik izan ezean, gure indarrak noraino iristen diren jakiteko zein egoeratan gauden aztertu beharko genuke. Gure unibertsitatearen ereduari begira ipiniz gero, berdin Frantzian zein Espainian, egitura hierarkikoa berehala antzematen dugu. Talde-interesak izaten dira nagusi eta interes horien arabera kudeatu ohi dira aldaketak. Ez dugu motiborik pentsatzeko datozkigun aldaketak beste modu batez kudeatuko direnik.

Komunitate unibertsitario euskalduna ez da iristen herena izatera Euskal Herriko unibertsitateetan. Oso proportzio txikia, beraz. Eta are txikiagoa Frantziako edota Espainiako unibertsitate-egitura erraldoietan kokatzen badugu.

Komunitate unibertsitario euskaldunaren kohesio falta

Komunitate unibertsitario euskalduna euskararen normalizazioaren ikuspegitik lorpenik emankorrenetarikoa izan daiteke. Hizkuntza bizi eta biziberritzeko bere goi-mailako hitzunek eta erakundeek berariazko erantzukizunak dauzkatelako. Unibertsitatean irakaskuntzaz harago, ikerkuntza, berrikuntza eta ezagutzaren hedapena egiten dugu. Hori da, luzera begira, hain zuzen ere, hizkuntza baten biziraupena ematen duena. Zuen aurrean honako hau esatea soberan legoke. Baina gogoratzea ez dago txarto.

Hizkuntzak hiztunok eta erakundeok modu kolegiatuan, auzolanean nahiago baduzue, egiten ditugu. Euskarak euskaldun egiten gaituela esan ohi da. Baina euskaldunok euskara egiten dugula esatea egia handiagoa delakoan gaude.

Komunitate unibertsitario euskalduna milaka pertsonen osatzen dugu, ehunka irakasle eta langile eta milaka ikasle hainbat unibertsitate, campus, fakultate eta eskolatan banaturik. Lotzen gaituena euskara da, euskara eta unibertsitateko jarduera. Komunitate horrek beren-beregiko erantzukizun eta interesak dauzka.

Tamalez, komunitate unibertsitario euskaldunak ez du berezko antolamendurik bere erantzukizunak ahalik ondoen betetzeko eta bere interesak ahalik sendoen defendatzeko. Salbuespenak salbuespen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitario euskaldunoi arrotz egiten zaizkigu Baionako campuseko lankide euskaldunen kezkek edo Nafarroako ikasle euskaldunen arazoak. Eta aitzitik. Baina berdin gertatzen da Leioako campuseko eta Ibaetako campusekoen artean edota Ekonomia Zientzien Fakultateko eta Filologia eta Geografia-Historia Fakultatekoen artean.

Bada unibertsitario euskaldunok berariazko izaterik ez daukagula pentsatzen duena. Euskaldunen artean ere. Baina eskolak eman behar dituztenean edo argitaratu behar dutenean edo ikertu edo oposizioak prestatu behar dituztenean edo lan-kontratua berritu behar dutenean edo unibertsitateko organoetan parte hartu nahi dutenean, gutako bakoitzak eta guztiok dauzkagun problema bertsuak dauzkate.

